

# Emakumeon Mundu Martxaren XI. Nazioarteko Topaketa



## Amaierako deklarazioa

Gu, Mundu Martxako emakumeok Bilbon, Euskal Herrian, urriaren 26an gure 11. nazioarteko topaketan 36 herrialdeetako ordezkariekin batera elkaturik, feminista anti-kapitalista, anti-kolonialista eta anti-arrazista bezela berresten ditugu gure buruak eta denok libre izan arte iraunkorki martxan jarraituko dugu.

Kapitala eta bizitzaren arteko logikak guztiz bateraezinak dira eta organizazio plural eta anitza garen heinean gure erantzunak geroz eta indartsuagoak izan behar dute bai kaleko mobilizazioetan zein herri mugimenduetan.

Sistema kapitalistaren berrantolaketaz ohartu gara honek faxismoaren berpizte bat ekarri duena, gerraren erabilera, eskubide sozial eta ekonomikoaren galera. Krisia bezela deituriko hori doikuntza ekonomikoetarako, eskubideen galerarako, bizitzaren pribatizatorako, gorputzen desjabetzarako eta lurraldeen okupazioak bideratzeko justifikazioa besterik ez da.

Enpresa transnazionalak geroz eta botere eta aberastasun gehiago metatzen dute beraiengan naturaren suntsiketa, indarkeria patriarkala eta herrien kanporaketa ahalbideratuz beraien jatorrizko tokietatik. Talde ekonomiko handiek balioa duten kateak kontrolatzen dituzte, naturako lehengaien erauzketatik hasita zerbitzu eta merkantzien ekoizpen eta banaketararte; eta gure gorputz eta lurrak kutsatu eta pozoiak ekoizten dituzte nekazal munduko transnazionalak, besteak beste.

Emakumeon lanaren gain sostengatzen dira doikuntza politikak, aski ezagunak diren orientabideak errepikatuz; adibidez soldataren, gastu publikoen murrizketa eta ordaindugabeko lanaren igoera, krisia deritzon horren erantzunkizuna herritarroi bideratuz.

Sistema hegemonikoaren aurrean desberdinak diren gobernuen aurkako erasoak ohartzen gara neoliberalismoaren aurrean alternatibak proposatuz sistema honek bizitzaz, demokrazioaz, ekonomiaz, eta azken finean, munduko botere eta baliabideen banaketaz dauzkan ulertzeko moduen aurrean. Testuinguru honetan, blokeo ekonomiko eta finantziarioak kontrol politikorako tresna bezala inposatzen dira hauen ondorioak, batez ere emakumeon bizitza eta gorputz gain, genozida eta suntsitzaileak bezela soilik izendatuak izan daitezkeelarik.

Lurraldeen militarizazioa, base-militarren eta indar paramilitarren igoera herrien kontrol eta beldurtze prozesurako neoliberalismoak daukan arma bilakatzen da.

Berrantolaketa honek emakumeon aurkako indarkeriaren areagotze bat suposatzen du bere dimentsio patriarkal, arrazista eta kolonialistaren osotasunean, honen adierazpen esanguratsuenak lurralde, gorputz eta komunitateen kontrol eta espoliaziorako aurkako erasoak direlarik, honek era berean desplazamendu handiak eragiten ditu, migrazioak, errefuxiatuak, pertsona-trafikoa, esplotazio sexuala, lesbiana eta sexualki anitzak diren pertsonen aurkako indarkeria, edota bizitzaren militarizazioa.

Gure lurraldeetako erresistentzietatik abiatuta dominazio eta esplotazio sistemari aurre egiten dioten esperientzia politiko eta ekonomikoak bultzatzen ditugu, bizitzaren jasangarritasuna proposamenen lehen lerroan kokatuz. Auto antolakuntzaren eguneroko eraikuntza, elkartasuna, agroekologia, ekonomia feminista eta solidarioa, ongizate amankomunen defentsa eta gure arbasoen jakintzaren berreskuraketa bizitza duin bat bermatzeko estrategiak dira, baita emakumeok gure autonomia eraikitzeke gure gorputz eta sexualitateen inguruan, eta indarkeria arrazista eta patriarkalik gabeko bizitza bat edukitzeko ere.

Emakumeon auto-antolakuntza indar mundiala sortzen duen subjektu politiko honen gure sendotze estrategia dela baieztatzen dugu, gurekin batera mundua eraldatzearen erronka konpartitu eta herrien autodeterminazio eta erresistentzia eskubidea bermatzen duten mugimendu aliatuekin batera.

XI. Nazioarteko Topaketa honetako eraikuntza kolektiboarekin sendotuak, gure martxak jarrai dezan gure herrialdeetako borroka feministetan aktiboki parte hartzen jarraitzeko deialdia luzatzen dugu, elkartasun ekintzak eraikitzerako orduan eta herriekin eta herri mugimenduekin elkar lanean.

Gaur 2020. urteko 5. Nazioarteko Ekintza antolatzen hasten gara. Apirilaren 24a mundu osoan zehar transnazionalen papera salatzeke erabiltzen dugun 24 orduko ekintza solidarioa bezela berresten dugu. Gure mugimendu politiko osoari dei egiten diogu emakumeok bizi dugun indarkeria eta gure bizitza eta barne zein kanpo migrazioak sortzen dituzten lurraldeen aurkako erasoek salaketa-mobilizazioekin jarraitzeko, ekonomia feministatik alternatibak eraikiz gure bizitza sostengatuko duten sareak defendatuz.

Ahizpatasun feministarekin, bizitzeko erresistitzen dugu, martxan gaude eraldatzeko!

Bilbon, 2018eko urrian

